

BIHAR DA GAUR

<< Hirugarren urtea munstroen inbasioa hasi zenetik eta ez dakit hemendik aterako naizen. Hau irakurtzen bazaude hilda nagoela esan nahi du. Karkasan harri berde bat dago. Apurtu eta 8 minututara hil egiten bazara, 4 urte atzera egingo duzu. A! eta ez joan ipar aldera hor Drako dago, historiako munstro fuertena. >>

-Joder lehenago abisatu ni ip...-

Esan zuen Urrek, bat batean Drako agertu zen eta garra batekin jo zion eta harri berdea herensugearen oinetara jausi zen, Drakok harria apurtu eta gero Ur hil zuen.

Ur edifizio oso handi baten aurrean agertu zen eta ez zekien zer egiten zuen hor, baina harri horrek funtzonatu zuela konturatu zen eta non zegoen ere gogoratu zen, guardianen soziedadean zegoen.

-Ur!-

Entzun zuen, orduan barrara joan zen eta barrako langilea agertu zuen:

-Bale Ur jarri hemen eskua, geroz eta mana gehiago eduki esfera gehiago apurtuko da.

-Lasai ezin da apurtu.

-Horrela?

Eskua jartzerakoan esfera oso gutxi apurtu zen.

-Zure nibela E da, nibel baxuena.

-Ooo- esan zuen Urrek desanimatua.

Ur soziedaetik desanimatua atera zen eta zarata bat entzun zuen atzetik, berak ikututako esfera guztiz apurtu egin zelako.

Ur mazmorra batera korrika joan zen, iristerakoan pantaila bat agertu zen bere aurrean, hor eguneko misioa jartzen zuen << Zer demontre da hau? >> pentsatu zuen Urrek. Bat batean pantailak estadistikak esateko esan zion, Urrek kaso egin eta pantaila aldatu egin zen. Gero estadistikak hobetzea esaten zion pantailak, berak puntu danak pertzepzioan jarri zituen jada nahiko fuertea eta arina zelako.

Taldea beraien artean aurkeztu eta mazmorrara sartu ziren. Hasieran dena nahiko normal zegoen munstroak hil, objektuak hartu eta horrelako gauzak, momentu batean Ane beste leku batetik joan zen, Ur horretaz enteratu zen eta pertsona horri jarraitu zotzan.

Momentu batean Anek alde danetara begiratu zuen eta bakarrik zegoela pentsatzerakoan gauza arraro bat jarri zuen lurtean Ane urrutizterakoan Ur objektua inbestigatzera gerturatu zen bere lehengo bizitzan munstruak hobetu eta mazmorrak zabaltzen zuen objektua zela ikusi zuen. Objektua hartu eta taldearekin bueltatu zen.

Munstroak geroz eta fuertagoak bihurtzen ziren nahiz eta hori inoiz pasatu. Taldea jefearen gelara heldu zen baina denak Ur kenduta nekatuta zeuden munstroak askoz indartsuagoak bihurtu zirelako. Ur ez zegoen kantzatuta bera materiala eramaten zuena zelako eta ez zuelako burrukarik egin.

Taldea jefearen gelara sartu zen baina hasieratik zerbait arraro zegoela sentitzen zen. Jefe berez dordoka erraldoi bat izan behar zen eta orain tximistazko dordoka erraldoi bat zen. Dordokak denak hil zituen, Ur eta Ane kenduta, segundu batean.

Urrek hildako baten dagak hartu eta burrukatzeko posizioan jarri zen. Hasieran oso pareko zeuden baina Urrek ezin zion dordokari ezer ez egin eta pixkanaka pixkanaka dordoka terrenoa hartzen hasi zen. Momentu batean Urrek ideia bat eduki zuen, ezin zionez dordokari ezer ez egin kanpotik barrutik atakatuko zion, bere taldekide batek zituen bi dinamitak irabiliko zituen, dinamita ahotik sartuko zion eta barruan esplotatuko zuen barrutik ez delako hain gogorra.

Urrek bere plana martxan jarri zuen, bakarrik dordokak ahoa zabaltzea behar zuen. Orduan, dordokak ahoa zabaltzen zenean, Urrek dinamita bota zion. Baina dordoka mugimenduan zegoenez dinamitak faillatu zuen. Ur denbora luzez nola egingo zuen dordokak ahoa zabaltu eta geldirik egoteko pentsatzen zegoen, hain kontzentratuta zegoen

pentsatzen ez zuela ikusi nora zijoan. Azkenean dordokak Ur akorralatu zuen baina justu momentu horretan dordoka gelditu eta garraxi egin zuen. Urrek momentu hori aprobetxatu eta dinamita ahora sartu zion. Dinamita lehertzerakoan dordoka azkenekoz hil egin zen.

Urrek lagundu zotzana ikusterakoan herensuge beltz txiki bat zela konturatu zen. Urrek herensugea ikusterakoan haragi pixka bat eman zion. Haragia probatu eta gero herensugea Urrengana gerturatu eta bere familiarra izatea eskatu zion. Familiarrak munstroak dira baina hauek lagunak dira eta ezin duzu munstro bati zure familiarra izatera derrigortu familiarren artean potereak partekatzen dira eta geroz eta familiar fuerteagoa geroz eta botere gehiago eta hobeak partekatu ahal duzue. Gainera herensugeak munstro mota fuerteenak dira. Urrek gustura onartu eta Gaueko izena jarri zion. Mazmorratik atera baino lehenago Ur eta Anek zerbait jan zuten lehengo sustoa pixka bat kentzeko.

Mazmorratik ateratakoan Urrek Ane akorralatu eta interrogatzen hasi zen.

-Lehen eman dizudan janaria enbenenatua zegoen, lehen zerbait arraroa jarri duzulako mazmorran. Galdera batzuk dauzkat, denak ondo erantzuten badituzu antidotoa emango dizut eta ez dut polizia deituko- esan zion Urrek Aneri.

-Lehen galdera, zer da hau?- galdetu zion Urrek lehen hartu zuen objektua erakusten.

-Objetu horrek munstroak hobetu, mazmorrak zabaldu eta guk kontrolau ahal izatea egiten du- erantzun zuen Anek ahots beldurtuarekin.

-Bigarren galdera, bakarrik zaude edo talde bat daukazu?-

-E... ez organizazio baten barruan nago-

-Hirugarren galdera, zergatik egiten duzue hau?-

-A! apokalipsisi kontrolatu bat egiteko eta fama asko edukitzeko-

-Laugarren eta azken galdera, non daude zure nagusiak?-

-E, ez dakit benetan ez dakit, baina eman antidotoa mesedez, dena ezan dizut-

-Egiazen inoiz ez dut eduki antidotorik-

-Zer?- gelditu zion Anek hil egingo zela pentsatzerakoan.

-Benetan ez dut benenorik momentu bat bezean eduki-

-Kabroia, rata bat zara!-

Poliziek Ane kartzelara eramandakoan sistemako notifikazio bat jaso zuen abilitate berri bat lortu zuela esaten, abilitate berria Mapa Zehatza deitzen zen. Abilitateak mapa olografiko perfektu bat egiten zuen eta berak pentsatzen zuena mapan agertzen zen eta gainera bide onena markatzen zuen.

Ur nibelak igotzen eta potere berriak lortzen egon zen eta bere lehengo bizitzan misterioski zabaldu ziren mazmorretara begiratzea joan zen.

Momentu batean organizazioko rangu altu batekin aurkitu zen. Borroka gogor bat eta gero Urrek mogikorra lapurtu zion informazioa bilatzeko, hor organizazio osoa puntu batean juntatuko zirela konturatu zen orduan informazioa poliziarri eman zotzan.

Batzarraren eguna heldu zenean dena oso ondo atera zen, poliziek bere lana egin zuten eta denak harrapatu zuten, baina Urrek ezin zuen lo egin zerbait zeukalako buruan bueltak ematen. Organizazioko baten bat falta zela uste zuen baina momentu horretan kristala apurtzen entzun zuen begiratzea joan zenean Gaueko bahitu zutela konturatu zen eta bahitzailea jarraitu zuen.

Bahitzailea edifizio batean sartu zenean Ur edifizioa laboratorio bat zela konturatu zen, Urrek bahiltzailea jarraitu zuen. Azkenean beste bi zientifiko zeuden eta hitz egiten hasi ziren eta orduan Ur Gaueko bere lehengo bizitzako Drako zela konturatu zen.

Momentu batean bahitzaile bat besteena urrundu zen Urrek momentu hori bahiltzailea hipnotizatzeko aprobetxatu zuen eta bueltau zenean beste bi bahitzaileak konorte gabe utzi zituen eta gero poliziek hiru bahitzaileak kartzelara eraman zituzten.

Urtea pasatakoan Ur urduri zegoen, inbasioa berriro ez pasatzeko desiatzen eta zorionez ez zen inbasiorik egon.